

Lurra eta Ura: bizi-iturria

Abendua 5, 2023



Food and Agriculture
Organization of the
United Nations



ekoetxea

Euskadiko Ingurumen zentron sarea
ERed de Centros Ambientales de Euskadi
Red de Centros Ambientales de Euskadi



ihobe

ingurumen hobekuntza
mejora ambiental



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITZAREN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



Ekosistemen biodibertsitatea lurzorua- ren osasunerako babes naturala da.

**Landare, mikroorganismo eta organismo bakoitzak ingurune konkretu bati laguntzen dio, lurzorua-
ren egitura eta funtzionaltasuna indartzen dituzten sinergiak sortuz.**

**Biodibertsitatea zaintzea ezinbestekoa da higadurari aurrea hartzeko, mantenu-
gaiak (nutrienteak) kontserbatzeko eta ingurumen-aldaketetara egokitzeko gaitasuna sustatzeko, eta gure lurzoruek epe luzera duten erresistentzia eta produktibitatea bermatzeko.**



Urak, atmosferak eta lurzoruek etengabeko ziklo bat osatzen dute, eta, horri esker, bizitza sostengatzen da gure planetan

Lurzoruek ura biltegitzen eta iragazten du, eta atmosferak, berriz, lurrunketaren eta prezipitazioaren bidez erregulatzen du haren banaketa.

Ziklo hidrológico horrek biodibertsitatea sustatzen du eta eredu klimatikoetan eragiten du. Ziklo horren osotasuna babestea funtsezkoa da gure planetaren osasuna zaintzeko eta etorkizuneko belaunaldientzat etorkizun jasangarria bermatzeko.



Lurzoruarekiko errespetua duen nekazaritza baten alde egitea da elikagaiak ekoiztearen eta gure ingurunea kontserbatzearen arteko oreka lortzeko gakoa.

Egiten dugun nekazaritza-motak zuzeneko eragina du lurzoruaren osasunean.

Nekazaritza-jarduera iraunkorrak hartzea, hala nola laboreen errotazioa, kontserbazio- nekazaritza eta ongarrien erabilera arduratsua, laboreen errendimendua optimizatzeaz gain, lurzoruaren biodibertsitatea sustatzen du eta degradazioa prebenitzen du.



**Lehortek lurzorua
produktibitateari eragiten dio eta
zuzeneko inpaktua du
nekazaritzako
produktuen ekonomian.**

**Urik ez izateak murriztu egiten du lurrak laborantza
osasungarriari eusteko duen gaitasuna, errendimenduak
murriztuz eta produktuen kalitateari eraginez.**

**Egoera horrek nekazariei eragiten die, eta horren
ondorioak elikagaien eskaintza gutxitzea eta prezioak
igotzea dira.**

**Lehortearen ondorioak arintzeko, elikagaien segurtasuna
bermatzeko eta nekazaritzako ekonomia sendo eta
iraunkorra mantentzeko, ezinbestekoa da uraren
kudeaketa jasangarria eta nekazaritzako praktika
iraunkorrak ezartzea.**



**Kontsumo arduratsua ere dago
lurzoruaren osasunarekin erabat
lotuta.**

**Kontsumitzaile gisa egiten dugun aukera bakoitzak,
gure elikagaien jatorritik gure hondakinen
kudeaketara, eragin zuzena du lurzoruaren
kalitatean eta iraunkortasunean.**

**Modu iraunkorrean landatutako produktuak
aukeratzeak, elikagaien hondakinak murrizteak eta
ingurumena errespetatzen duten aukerak
hautatzeak lurzoruaren emankortasuna babesten
eta degradazioa arintzen laguntzen dute.**




Red de Centros Ambientales de Euskadi



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANAGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE





Basoak funtsezko elementuak dira klima-aldaketa arintzeko, karbono dioxidoa xurgatzen dutelako

Deforestazioak eta errepideak eraikitzeak, adibidez, zuhaitzak kentzen dituzte eta lurzoruak ura xurgatzeko duen gaitasuna murrizten dute, lurzoru idorrak utziz, eta uholde-arazoak eta biodibertsitate-galera eragiten dituzte.

Kontuan hartu behar da ezen, klima-aldaketari eta biodibertsitatearen galerari ekitean, ezinbestekoa dela konponbide globalak kontuan hartzea, elkarrekin lotutako desafio horien sintomak eta funtsezko arrazoiak aintzat hartzeko.

TANTAZ TANTAKO UREZTAPENA




TEILATUETAKO EURI URA JASOTZEKO DEPOSITUA



KONPOSTATZEKO ONGARRIA



BASOA



ITURRIA AIREZTAGAILUAREKIN



ELIKAGAIAK LORTZEKO HAZIAK EREIN

